

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

448

3/2025 DEKRETUA, urtarrilaren 23koa, lehendakariarena, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Zuzendaritza Kontseilua osatuko duten kideak izendatzeko dena.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko azaroaren 27ko 4/2014 Legearen 8.1 artikulua ezartzen duenez, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluko kideak, institutuko lehendakariak eta zuzendariak gain, honako hauek izango dira:

a) Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren hamalau ordezkari, institutua atxikita dagoen sailak Administrazio goi-kargudunen artean hautatu ondoren izendatuak.

b) Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 24.1 artikulua arabera eratu talde parlamentarioek hautatutako kide bana.

c) Foru-instituzioen hiru ordezkari, foru-aldundi bakoitzak bere diputatu-kontseiluko kideen artean hautatu ondoren izendatuak.

d) Euskadiko udalen hiru ordezkari, Euskal Autonomia Erkidegoan kide gehien duen udal-elkar-teak alkateen artean hautatu ondoren izendatuak.

e) Bost kide independente, Eusko Legebiltzarrak memoria sustatzen eta askatasun zibikoak eta elkarbizitza demokratikoaren printzipioak defendatzen itzal handia duten pertsonen artean hautatu ondoren izendatuak.

Arau horrek berak 8.2 artikuluan ezartzen duenez, a) atalean d) atalera (biak barne) aipatzen diren Zuzendaritza Kontseiluko kideek beren izaerari eutsiko diote dagokien erakundeko kide izateko ezarritako baldintza betetzen duten bitartean, salbu eta izendapena egiteko eskumena duen organoak ordezkatzeari erabakitzen badu.

Legegintzaldi berriari hasiera eman zaionez, Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren 2024ko urtarrilaren 13ko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoak Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritza Kontseiluan izango dituen ordezkariak izendatu dira; alegia, a) atalean aipatzen diren ordezkariak.

Bestalde, Eusko Legebiltzarraren erabakiz, 2024ko irailaren 26an egindako bilkuran, legebiltzar-talde bakoitzeko kide bat izendatu da; alegia, b) letran aipatzen diren ordezkariak izendatu dira; horren aurretik, hain justu ere, 2024ko irailaren 25ean, Legebiltzarreko Justizia eta Giza Eskubideen Batzordeak hartutako erabaki baten bidez, e) letran aipatzen diren bost kide independenteak izendatu dira.

Irailaren 29ko 23/2015 Dekretuaren, martxoaren 2ko 5/2020 Dekretuaren eta urriaren 2ko 25/2023 Dekretuaren bidez, c) eta d) letran aipatzen diren pertsonak izendatu ziren.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Estatutuei buruzko azaroaren 3ko 204/2015 Dekretuak 7.7 artikuluan ezartzen duenez, lehendakariaren dekretu baten bidez izendatuko dira Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluko kideak, izendapenak jaso ostean.

Horiek horrela, honakoa

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Honako hauek Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluko kide izendatzea:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra ordezkatzeko:

- María Jesús Carmen San José López andrea, Justizia eta Giza Eskubideen sailburua.
- Alfredo Retortillo Paniagua jauna, Giza Eskubideen, Memoriaren eta Bizikidetzaren sailburuordea.
- Alfonso Gómez Fernández jauna, Justiziako sailburuordea.
- Jagoba Álvarez Ereño jauna, Giza Eskubideen eta Biktimen Arretaren zuzendaria.
- Silvia Fernández Pérez andrea, Justizia eta Giza Eskubideen Kabineteko eta Komunikazioko zuzendaria.
- Mikel Iriondo Bilbao jauna, Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen idazkari nagusia.
- Ander Caballero Barturen jauna, Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren idazkari nagusia.
- Miren Elgarresta Larrabide andrea, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria.
- Andoni Iturbe Amorebieta jauna, Kulturako sailburuordea.
- Urkiri Salaberria Gracia andrea, Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren zuzendaria.
- Lucia Torrealday Berrueco andrea, Hezkuntza Politiketako sailburuordea.
- Adrián López Sarachaga jauna, Gazteria eta Emantzipazioko zuzendaria.
- Adolfo Morais Ezquerro jauna, Zientzia eta Berrikuntzako sailburuordea.
- Jakes Aguirrezabal Iribar jauna, Turismo eta Merkataritzako sailburuordea.

Eusko Legebiltzarraren izenean:

- Xabier Barandiaran Irastorza jauna.
- Eraitz Saez de Egilaz Ramos andrea.
- Miren Gallástegui Oyarzábal andrea.
- Laura Garrido Knör andrea.

Eusko Legebiltzarrak izendatutako kide independenteak:

- Josu Elespe Peláez jauna.
- Paco Etxeberria Gabilondo jauna.
- María Jauregi Lasa andrea.

2025eko urtarrilaren 29a, asteazkena

- Eider Landaberea Abad andrea.
- José Antonio Pérez Pérez jauna.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 23an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.